

# ZAINTZAILEEN LAN BALDINTZEI

## NEGOZIOARI EZ

Zaintzaren sektoreko langileek esklabotzatik gertu dauden lan baldintza prekarizatuak pairatzen dituzte. Honek erantzule argia du: pribatizatu eta zaintzak negozio bihurtzen dituena.

Gure kasuan, arduradun hori azken 40 urteetan EAEn agintean egon den alderdia da, EAJ, hain zuen ere. Era berean, Nafarroan, gobernuko alderdi neoliberalek eta ultrakontserbadoreek urteetan zehar ildo berari jarraitu diote: pribatizatu, merkantilizatu eta jendearen premiak erabili irabaziak lortzeko. Milaka emakume langileren bizitzak prekarizatu eta enpresa pribatuentzako esleipenen bidez diru publikoa poltsikoratu dute. Zaintza, aberastasun iturri izan da batzuentzat.

Egoera horrek konponbidea behar du, berehala. Zaintzaren negozioarekin amaitu eta zaintzak demokratizatu behar ditugu. Diru publikoa egoitza pribatuetara desbideratzen da urtero: EAEn, 210 milioi eurotik gora; Nafarroan, 100 milioi euro inguru. Nafarroan dauden 72 egoitzetatik, 2 baino ez dira publikoak, eta EAEn, 370 zentroetatik % 90 pribatuak dira, eta 70 baino gehiago EAJko kargudun ohienak.

Datu argiak dira. Ezin diogu egoerari ezikusiarena egin. Diru publikoa esku pribatuetara desbideratzen da, lagunen enpresei emateko eta, bien bitartean, langileen baldintzak eta zaintzak behar dutenen arreta gero eta gehiago kartzen da. Ezin dugu egoera hau luzaroago onartu. Zaintzak ezin dira negozioa izan, gutxi batzuek zaintzaileen ustiapanaren eta zerbitzuaren okertzearen kontura irabaz dezaten.

Zaintzak eskubidetzat hartu behar dira: modu duin eta bidezkoan zaindu eta zaintzeko eskubidea, bai zaintzaileentzat, bai zainduak izaten ari direnentzat. Horixe da bizitza erdigunean jartzea. Gaur egun, gobernatzen duten alderdiek kontrako aukeratu dute: negozioa erdigunean jartzea.

Horren aurrean:

- Zaintzarekin zerikusi zuzena duen ezein zerbitzu pribatizatzeko debekua eskatzen dugu, adinekoen egoitzetik eta etxez etxeko laguntzatik hasita.
- Negozio horiek kudeatzen dituzten enpresen gaineko kontrola eskatzen dugu, bai eta hitzarmenak negoziatzeko betebeharra ere. Halaber, eta enpresa horiek publikatu arte, bertako lan baldintzak sektore publikotik zuzenean ematen diren zerbitzuetako lan baldintzakin pareka daitezela. Zaintza, eskubide gisa, ezin da esku pribatuetan geratu.
- Zaintza sistema publiko bat behar dugu, premia horiei guztiei erantzungo diena, eta langileek aspaldidanik jasaten duten egiturazko esplotazioarekin amaituko duena.
- Adinekoen egoitzak eta etxez etxeko laguntzaren kudeaketa zuzena eskatzen dugu, baita etxeko lanaren erregularizazioa ere, lan baldintzak babestuko dituen hitzarmen kolektibo baten bidez.
- Egoera irregularrean dauden etxeko langile guztien erregularizazioa.

Ez ditugu zaintzak eta zaintzaileak enpresa esplotaztzaileen esku utziko, onura besterik ez baitzaie interesatzen, eta ez bizitza. Era berean, berriz pribatizatzeko eta zaintzak etxeetara itzultzeko familia-politikak salatzen ditugu; ez da irtenbide justua, emakumeak\* zainketen erantzule bihurtzeko modua baino. Ez gaude xantaia hori onartzeko prest. Zaintzen birbanaketa justua eta berrantolaketa soziala aldarrikatzen dugu.

Gainera, hori guzia etxeko langileen esplotazioarekin batera gertatzen da. Egoera larrian daude, beren eskubideak ukatuta eta langiletzat hartu gabe. Atzerritarasun legeak hori guzia ahalbidetzen du. Egoera irregularrean dauden etxeko langile guztiak erregularizatzea eskatzen dugu. Hemen lan egiten dute eta hemen bizi dira.

**Eskubide guztiak denontzat!**

**Zaintza lan guztien pribatizazioa eta azpikontratazioa gelditu!**



# ZAINTZAILEEN LAN BALDINTZEI

## **NO AL NEGOCIO DE LOS CUIDADOS**

Las condiciones laborales precarizadas y de semiesclavitud de las trabajadoras del sector de cuidados tiene un claro responsable: quien privatiza y hace de los cuidados negocio.

En nuestro caso, este responsable es el partido gobernante en la CAV durante las últimas 4 décadas, el PNV. Asimismo, en Nafarroa, los partidos neoliberales y ultraconservadores en el gobierno durante años han seguido la misma línea: privatizar, mercantilizar y lucrarse de esta necesidad, a costa de precarizar las vidas de miles de mujeres trabajadoras y embolsándose dinero público a través de adjudicaciones a empresas privadas. El cuidado ha resultado ser fuente de riqueza para unos cuantos.

Esta situación requiere de una urgente y rápida solución. Hemos de acabar con el negocio de los cuidados y democratizarlos. Los datos nos hablan del desvío de más de 210 millones de euros del dinero público a residencias privadas en la CAV y alrededor de 100 millones de euros al año en Nafarroa. En Nafarroa de las 72 residencias existentes, sólo 2 son públicas y en la CAV, de los 370 centros, el 90% son privados y más de 70 pertenecen a ex cargos del PNV.

No podemos seguir impasibles ante el desvío de dinero público a manos privadas para beneficiar a unas cuantas empresas amigas a costa de las trabajadoras y de la atención que se presta a quien requiere de esos cuidados. No podemos aceptar por más tiempo esta situación. Los cuidados no pueden ser un negocio para que unos pocos se lucren a costa de la explotación de las cuidadoras.

Los cuidados han de considerarse un derecho: derecho a ser cuidado y a cuidar de manera digna y justa, tanto para quienes cuidan como para quienes son cuidadas. Eso es poner la vida en el centro. Hoy en día los partidos gobernantes han optado por lo contrario; poner en el centro el negocio.

Ante esto:

- Exigimos la prohibición de privatizar cualquier servicio que tenga relación directa con los cuidados, empezando por las residencias de mayores y la ayuda a domicilio.
- Exigimos control sobre las empresas que gestionan estos negocios y obligación de negociar convenios y equipar, hasta su publificación, las condiciones a las de los servicios prestados de manera pública y directa. El cuidado, como derecho, no puede quedar en manos privadas.
- Necesitamos un sistema público de cuidados que vaya atendiendo a todas estas necesidades y acabando con la explotación estructural a la que se ven sometidas sus trabajadoras desde hace años.
- Exigimos la gestión directa desde ya de las residencias de personas mayores, la ayuda a domicilio y la regularización del trabajo de hogar a través de un convenio colectivo que salvaguarde sus condiciones laborales.
- Regularización de todas las trabajadoras de hogar en situación irregular.

No vamos a dejar los cuidados y a las cuidadoras en manos de empresas explotadoras a las que lo único que les interesa es el beneficio y no la vida. Denunciamos, a su vez, las políticas familiaristas de reprivatización y vuelta de los cuidados a los hogares; no es una solución justa, es una manera de volver a responsabilizarnos a la mujeres\* de los cuidados. No estamos dispuestas a aceptar este chantaje. Exigimos una redistribución justa y reorganización social de los cuidados.

Además, todo esto se ve acompañado de la explotación de las trabajadoras de hogar. Estas se encuentran en una situación de profunda precarización, con sus derechos negados y sin ser consideradas trabajadoras. La ley de extranjería posibilita todo esto. Exigimos ya la regularización de todas las trabajadoras de hogar en situación irregular. Trabajan aquí y viven aquí.

**¡Queremos todos los derechos para todas!**

**Reversión y freno ya, a la privatización y subcontratación de todos los trabajos de cuidados.**

